

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko ekainaren 2a. VIII. urtea. 2.237. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Jabier Zabala Alkate eta zinegotzi ohia

«Gazteei esango nieke tokia hartzeko, etorkizuna beraiena baita»

Zabala Frankismo ondorengo lehen udal hauteskundeetan hasi zen Adunako Udalean herriaren alde lan egiten, eta 2007. urterarte egon da bertan zinegotzi edo alkate moduan

Orain arte egindako lana eskertzeko ekitaldia antolatu du iganderako Adunako Elkarte Herritarrak; 12:00etan plazan dultzaineroak, dantzariak eta bertsolariak izango dira 05



Jabier Zabala, udaletxea atzean duela. E.MAZ



Uzturre inguruan orain, zuhaitzen landatzea bakarrik falta da. A. BELAUNZARAN

Uzturre inguruko 15 nekazal terraza, agerian

Aitor Bartolome eta beste bost lagunek mendi azpiko 35 urteko pinuak eskuz atera dituzte, eta 2 hektarea garbitu dituzte 07

Tolosako bost guneetan lorategiak jarriko dituzte ekainaren 4tik 12ra

Tolosa Berdez ekimenaren barruan, lore eta landare bereziak izango dira ikusgai; XXII. Lore eta Landareen Azoka larunbatean izango da 02



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila		Erdi Maila
<ul style="list-style-type: none">Gizarte IntegrazioaHaur HezkuntzaOsasun DokumentazioaDiagnosi Irudia	AURREMATRIKULAK EKAINAK 1 - 10	<ul style="list-style-type: none">Erizaintza laguntzaileaFarmazia eta parafarmazia teknikariaSarbide proba

KALITATEZKO FORMAZIOA

Zesta punta partidak izango dira asteburuan

San Joan Txapelketa jokatuko dute Beotibar pilotalekuko kantuan bihar, 20:30etik aurrera

I. Urkizu

Bihar, ekainak 3, Beotibar Zesta Punta Elkarteak antolatutako San Joanetako Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte.

Partidak iluntzeko 20:30ean hasiko dira, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Lehenengo norgehiogokan, Altuna-Telleria bikotea Lopez-Aizpurua bikotearen aurka

ariko da. Bigarren partidari, berriz, Izagirre-Rabadan bikotea Trabazos-Jauregiren aurka lehiatuko da frontoian. Bi partidetak garaileek, San Joan Txapelketako finala jokatuko dute, datorren ekainaren 18an.



Partidak iluntzean izango dira. HITZA

Irudia ▶



XAKE TXAPELDUNA

Pasa den hilaren 31n, Juan Bautista Aranzabe *Matek*, Gipuzkoako Jubilatuen Xake Txapelketa irabazi zuen bigarren aldiz jarraian, Donostiako Alza auzoan. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun neska euskalduna behar dugu, astean zehar taberna batean lan egiteko. Interesatuak, deitu 608 10 39 59 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Iruran 120 metro kartratuko lokala, gune industrialean kokatua. Oso egokia eta aproposa da hainbat eginkizunetarako. 500 euro hileko. Inte-

resatuak, deitu 619 34 93 85 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Apartamentua Jakan.** PAItzariz guztiz hornitua, erdiguinean, parkegune handi baten ondoan. Garajea eta traste lekua ere baditu. Prezio interesgarria. Deitu 667 492 557ra.

AURKUTUTAKOAK

■ **Bizikleta.** Pasa den maiatzaren 21ean, larunbata, 12 urteko



Nerea Letamendiarekin batera, paisajistetakoz batzuk ere izan ziren prentsaurrekoan. LURKIZU

Loreek eta landareek beteko dituzte herriko plazak hilaren 4tik 12ra bitarte

Tolosa Berdez ekimenaren baitan, hirugarren urtez apainduko dituzte herriko bost plaza

Itzea Urkizu

Udaberriarekin batera, eta hirugarren urtez jarraian, Tolosako plazak lorez eta landarez jantziko dira, Tolosa Berdez ospatzeko; ekainaren 4tik 12ra bitarte izango da hau.

Duela aste batzuk, Alondegi plazan *Usain gozoak eta zapoak* deituriko lorategi iragankorra jarri zuen udalak, Allariz herri galiarrek udalarekin sinatutako akordio baten ondorioz. Allarizen, iaz ospatu zuten lehen aldiz Lorategien Nazioarteko Jaialdia, eta hango eredia Tolosarako «egokia» izan zitekeela pentsatuta, Tolosako Udalak Zumardiaun-

dian jarri berri du ikusgai, Lorategien Nazioarteko Jaialdia.

Hala ere, Tolosa Berdez ekimenak, bere hirugarren urtean, herriko erdigunea bete nahi izan du landarez eta lorez. Antolatzaileek diotenez, «harria nagusitzen da une gogor hauetan, eta hain zuzen ere zonalde hauek berdez jantzeko helburuarekin jaio zen Tolosa Berdez».

Esan bezala, datorren ekainaren 4tik 12ra bitarte herriko bost plaza lore nahiz landare bereziz apainduko dituzte: Gaztelako Atea, Plaza Zaharra, Berdura plaza, Andre Maria plaza eta Euskal Herria plaza izango dira aurretan, lorategien eszenatoki.

Gaztelako atean, Donostializar-eko Amaia Agirrek graffiti eta landaketa bertikala uzartuko ditu, Tolosa Berdez-en logotipoa abiapuntuz hartuz; horman landatuko ditu loreak.

Plaza Zaharrean, berriz, Berde Berde enpresako Haritz Elosegi-

ren lorategia izango da ikusgai. Aurretan, kontsumo arduratsua- ren gaia landuko du, eta natura- ren bakeaz gozatzeko astia har- tzen duen gizartea irudikatuko du. Hau egiteko, landareak zabor- rontziak eta birziklatutako materialarekin nahastuko ditu.

Berdura plazan, Azpiazu min- tegiko Inigo Azpiazuk frantziar erako iturri baten inguruan loka- tzezko lorontzi eta geranio gor- ritz osatutako lorategia jarriko du.

Zuhaitzak izango dira protago- nista Euskal Herria plazan, Go- roldi enpresako Joxe Mari Arsua- gak altueran kokaturiko lorate- gia ezarriko du eta. Alegoria bat irudikatuko nahiko du, zuhaitzek zementuaren aurka egindako al- darrikapen moduan.

Andre Maria plazan baratzeko espezie historikoak erabiliko ditu Urretabizkaia mintegiko Pablo Alderdi paisajistak, herritarrei hauek ezagutzera emateko. «To- losan eremu garrantzitsua da plaza, eta baratzeeen zaintzan aritzen diren guztiei omenaldia egin nahi diet hemen». Aurtengo lorategia parte-hartzea bultzatuko duena izango dela nabarmendu du.

Lorategien jaialdiaz gain, ekai- naren 4an, eta egun osoz, XXII. Lore eta Landareen Azoka bere- zia egingo dute Trianguloan, eta artisau azoka ere izango da.

umeentzako moduko moun- tain-bike bizikleta agertu zen. Galdu duenak, deitu dezala 635 70 69 53 zenbakira.

ESKAINITZA

■ **Ingeleseko ikastaroak.** Inge- leseko ikastaroak emango dit- ut, uda partean: ekainean, uz- tailean eta abuztuan. Talde be- reziak osatuko dira.

Elkarrizketak, atzerriko bidaie- tarako eta lanerako gaitasunak landuko ditugu. Maila desber-

dinak jorratuko dira, taldeka edo banaka. Umeak eta hel- duak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68.

■ **Klase partikularrak.** Psikope- dagogian eta hezkuntza bere- zian tituludunak. LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei zu- zenduriko klase partikularrak emango lituzke, Andoain, Adu- na, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta inguruetan. Interesatuak, deitu 669 00 56 71 telefono zenbakira.



Oraindik ez dago argi Tolosak alkate berria edo lehengoa edukiko duen

Ekainaren 11n udaletxeetan aktak sinatuko dira; Adunan eta Tolosan oraindik ez dakite alkatea zein izango den

Tolosan Ibai Iriarteren eta Jokin Bildarratzen artean dago lehia

Ibai Iriarte • Bilduren alkategaia

«Gure asmoa alkatetza eskuratzea da»

A. Imaz

Bilduko ordezkariak atzo prentsaurrekoa eman zuten, alde batetik, herritarrei eskerrak emateko eta bestetik, ondorengo lau urtetako ildo nagusiak zein izango diren azaltzeko. Aurrez ordea, Iriarterek alkatetzaren inguruko galderei erantzun zien.

Alkatetza ez dago seguru oraindik, ezta?

EAJrekin eta Aralarrekin lehenago astean elkartu ginen. Bilera horien helburua, lehenik, elkar ezagutzea izan zen. Ondoren, hauteskundearen inguruan hausnarketa egiteko eta aurrera begirako jarrerak ikusteko ere balio izan zuten. Azkenik, bigarren bilera bat egiteko gelditu ginen.

Badirudi giltza Aralarrek duela. Zer esan dizue zuei?

Hitz egiteko prest zeudela esan ziguten; programaren inguruan zehaztasun batera iritsi nahi zutela. Hori aintzat hartuta, txosten programatikoa egin dugu, lau urteei begirako ildo nagusiak hartuko dituen. Horren inguruan hasi nahi dugu lanean, baina oraindik ez daukagu ezer itxita inorekin.

EAJrekin hitz egitean, zerrenda bozkatuena errespetatuko zutela esan al zuten?

Ez. Horren inguruan ez zuten ezer esan. Hala eta guztiz ere, guk argi utzi genuen, gure asmoa zerrenda bozkatuena izatean alkatetza eskuratzea zela; beraiek ez ziguten argitu hori errespetatzeko prest dauden edo ez.

Berriz elkartzen zaretenean erabakiko al da dena?

Guk beraiei gure udal programa edo txosten programatikoa mahai gainean jarriko diegu; gero aztertzeke denbora bat emango die-



L. GARCIA

gu, eta horren gainean adostasun batetara iritsi nahiko genuke.

Denak Aralarri begira daudela dirudi. Ez dut uste. Herriak argi eta garbi hitz egin du, eta aldaketa garaia dela esan du. Gernikako akordioa sinatu zuten eragile eta alderdiek gehiengo absolutua lortu zuten Tolosan. EAJk inoiz baino bozka gehiago atera ditu, baina guk beraiek baino 200 gehiago ditugu; honekin zera esan nahi dut, konputu politikoak baino, herriak hitz egin duela, eta aldatetaren alde bozkatu duela.

Irazabalbeitiak (Aralar) EAJ babestuko balu, zer?

Udal programak alderatzen baditugu, Aralarrena eta gurea dira elkarrengandik gertuen daudenak. EAJ babestuko balu, PSE-EErekin batera, orain arte esandako guztia ezerezean geldituko litzateke. Egin diren bi mahai inguru publikoetan, adibidez, osasun publikoaren eta euskararen ingurukoetan, Aralarrek eta Bilduk jarrera berdina mantendu dugu, ez ordea, EAJk. Nahi duenari eman diezaiok bozka, noski, baina neurri handi batean bizkarrak emango lioke Aralar bozkatu dutenei.

Asier Imaz

Ekainaren 11n Tolosaldeko eta Leitzaldeko udaletan udalbatza berriak osatuko dituzte. Adunan eta Tolosan izan ezik, beste udalerrietako alkateak nortzuk izango diren argi dago.

Tolosan Bilduk zortzi hautetsi lortu zituen hauteskundeetan; EAJk zazpi; PSE-EEK bat; eta Aralarrek beste bat. Alkate izateko aukerak ondorioz, Ibai Iriarterek (Bildu) eta Jokin Bildarratzen (EAJ) dituzte. Giltza ordea, PSE-EE eta Aralarreko ordezkariak

dute. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak lau zerrendaburuekin hitz egin du, eta oraindik dena erabakitzeaz dagoela esan daiteke. Jokin Bildarratzen bere aldetik, ezer esan aurretik itxarotea nahiago duela azaldu du.

Iñaki Irazabalbeitia • Aralarren hautetsia

«Gipuzkoa mailako negoziazioa ere hor dago»

A. Imaz

Telefonia hartu orduko, «nobedaderik ez dago, eta hortik ez naiz aterako» esan du Irazabalbeitiak. Hala eta guztiz ere, galderak erantzuteko borondatea azaldu du.

Noiz egin dituzte bilera horiek?

Informazio hori ez dut emango. Hizketan gabiltzan alderdien arteko kontua da hori, oraingoz.

Baina norekin egin dituzte, Bildurenkin bakarrik ala EAJrekin ere bai.

Bilera formal eta informalak egin ditugu; alkatetzara iritsi daitezkeen indarrekin.

Bilduren alde, EAJren alde edo abstentzioa da zuen aukera.

Ez dugu horren inguruko erabakirik hartu.

Kanpainan zehar ezkerreko alderdi bezala aurkeztu zarete, pentsa liteke Bilduritik gertuago zaudetela EAJtik baino, ezta?

No comment.

Noizko hartuko duzue erabakia?

Izaten ari garen elkarrizketak ondorio batera iristen direnean, eta oraindik ez gara iritsi.

Zer baloratuko duzue?

Hori lehendik ere esana daukagu; lau urte hauetako egitasmoa zein izango den, eta hori gauzatzeko zein baliabide eta zein modu aurreikusten diren.

Batzorderen bat eskatuko al duzue?

Hori ez dago erabakita, eta gainera, beste gauza bat ere kontuan hartu behar da; Gipuzkoa mailako negoziazioa ere hor dagoela.

Gipuzkoa mailako erabakiak Tolosan edukiko al du eragina?

Normalean beste mailako akordio globalak egiten direnean, ondorioak izaten dituzte gainontzeko akordioetan. Oraindik 11 egun falta dira, eta 11 egunetan gauza askori buruz hitz egin liteke, eta erabaki asko hartu edo ez hartu.



A. IMAZ

Momentu honetan hizketan ari gara, eta erabakirik ez dago hartuta ez zentzu batean eta ez bestean.

Gertu al dago erabakia?

Momentuz ez dago mahaiaren gainean ezer zehatzik jarrita.

Hauteskunde hauetan herritarrek zer bozkatu dute, alkatetzan jarraitzea ala berria jartzea?

Bietara interpretatu daitezke gauzak; boto gutxien atera duenak ere aurrekoetan baina dezenteko gehiago atera baititu. Orduan, ez dakit. Hori botoa ematen duenari galdetu beharko zaio, gu ez gaude interpretatzeko norberak botoa ematen duenean zein arrazoi erabiltzen duen botoa bati edo besteari emateko.

Jose Ignazio Asensio PSE-EEren hautetsia

«Bildu ez dugu babestuko; urrun gaude oraindik»

A. Imaz

EAJ babestu aurretik, Diputazioan zer gertatzen den ikusi nahi du Asensio. Beste aukera ere zabalik daudela onartu du.

Erabaki al duzue ekainaren 11n zein izango den zuen erabakia?


Oraindik ez. Gurekin inorez da elkartu oraindik eta zain gaude.

Bildu babesteko inongo aukerarik ba al dago?

Bilduren alde ez dugu egingo. Hori argi esan dugun beste hainbat lekutan ere. Oraindik oso urrun gaudela esan genezake. Baina abstentzio edo gure hautagaiaren alde egin dezakegu.

Horrek zer esan nahi du, EAJren aldeko bozka ere ez dela ziurra?

Gipuzkoako Foru Aldundiari garrantzi handia ematen diogu. Proiektu estrategiko garrantzitsuak aurkitzen dira bertan, eta EAJk bertan hartzen duen jarrerak ondorioak eduki litzake herrietan. Bertan zein erabaki hartzen duten ikusi behar da, eta horretarako oraindik denbora gelditzen da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Epe motzean bi turismo bulego zabalduko dituzte. Alde batetik, plazan bertan eraberritu berri duten harategi zaharra; eta, bestetik, Leitzalarreko Ixkibarrekoa. M. UGARTEMENDIA



Maier Ugartemendia Leitza

Leitza turismo gune bat bilakatuko da denbora gutxian. Izan ere, Leitzako Udala turismo iraunkorra bultzatu nahi du herrian, eta horretarako turismo bulegoak prestatzen ari da.

Epe motzean bi turismo bulego zabalduko dituzte, bata plazan eta bestea Leitzalarrean, Ixkibarraren zehazki. Hala ere, «2013 aldera proiektua osatzea» espero dutela dio Jon Arangoa, Ingurugiroko zinegotziak; horretarako, Plazaolako geltokia berrituko dute, bertan ostatu bat, BTT zentro bat eta museo tematiko bat egongo lirareke.

Leitzak bere egoera geostrategikoa dela eta, ibilbide historiko luzea du. Hori dela eta, historiaurretik hasita aztarna ugari topa daitezke bertako mendietan. Horrez gain, aberastasun natural handiko gunea da, monumentu natural eta guzti. Udalak hau ikusirik, eta bisitari asko izaten zizutela ikusita, «lanketa bat» burutu zuen, eta informazioa herritarrek beraiek zabaltzea erabaki zuten. Honela, turismo iraunkorra aurrera eramateko, turismo bulegoak azken ukituak ematen ari dira. Esan bezala, oraingoz plazakoa eta Ixkibarrekoa zabalduko dituzte. Hauek egun guztian zehar zabalik egongo dira goi denboral-

Kanpotarrek Leitza eta bere ingurunea ezagutu ahal izateko bi turismo bulego zabalduko dituzte, bertan informazio panelak jarri eta eskuorriak banatuko dituzte; honela «turismo iraunkorra» bultzatu nahi dute.

Leitzako herria turismoari begira



Hainbat mapa prestatu dituzte gerturatzen diren turistek banatzeko. HITZA

dian, eta urteko beste egunetan egun eta ordu zehatz batzuetan irekiko dituzte. Bulegoetan Leitzari eta bere inguruneari buruzko informazioa duten panelak daude. Lehen harategia zen plazako bulegoan, esate baterako, gai hauek lantzen dira: Natura,

lantegiak, ura, harria, kirola, zura, eta abar. Panelak lau hizkuntzatan daude: Euskaraz, katalanez, gaztelerez eta ingelesez. Gainera herriko, Plazaolako eta Leitzalarreko informazioa duten eskuorriak ere banatuko dituzte. Bertan, interesguneak zein diren,

herrian zein ibilbide egin daitezken, edo lo egiteko zein otorduak egiteko lekua non aurki daiteken azaltzen dute, besteak beste. Herri-guneko eta Leitzalarreko mapak ere izango dituzte. Material guztia «herriko jendeak» prestatu dute: idatziak, maketak, argazkiak...

Monumentu naturalak

Harategi zaharra zen turismo bulegotik jendea interesa duen lekutara bideratzeko asmoa dute. Leitzalarrean, zehazki Ixkibarraren, dago harrera gune nagusia izango den bigarren turismo bulegoa. Horretarako, garai bateko mendizainaren bizilekua zena berritu dute. Bertan «informazioa bildu, autoa utzi eta jendea oinez bideratzea» da asmoa, Arangoaren hitzetan. Hemen ere, informazioa ematen duten hainbat panel daude; bioaniztasuna, abeltzaintza, mugarratzea edota burdino-

lei buruzko informazioa jasotzen da bertan.

Leitzalarrea oso ingurune aberatsa da. Herriaren azaleraren erdia du gutxi gorabehera, eta batez ere, pagadiz eta haritziz osatua dago. Leitzalarrean monumentu megalitiko asko daude. Trikuharri eta tumulu ugari aurki daitezke, eta mehatze jarduera oparua izan zen bertan, orduko hondarren eta burdinolen aztarna ugari daudelarik oraindik.

Ixkibarren, gainera, mahaiak eta erretokiak dituen gune bat dago, eta inguruko lekuri interesgarrienak ikusteko ibilbideak erakusten ditu taula batek. Gero, bide horiek guztiak seinaleen bidez markatuta daude.

Aipatutako gunez gain, bada Leitzalarrean bertan dagoen eta oso interesgarria den beste leku bat: Izaieta, Nafarroako monumentu naturala. Bertan ondare natural izendatutako izei zuriak babestuz, Leitzako herriko lurretan ageri diren bertako zuhaitz eta zuhaixka espezie guztien aleak daude. Guztira, 41 zuhaitz espezie mota daude, eta zuhaitz baikoitzaren aurrean informazioa ematen duten plakak ikusi daitezke.

Hortaz, Leitza eta bertako turismo bulegoak bisitatzeko nahikoa arrazoi badaude. Eta, turismo iraunkorrarekin herritarrek Leitzaren informazioa zabalduko dute.

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Jabier Zabala ▶ Alkate eta zinegotzi ohia

16 urtez alkate eta 12 urtez zinegotzi izan den Jabier Zabalak, igande eguerdian, herritarren eskutik omenaldia jasoko du.

«Errazagoa da gauzak egin behar direla esatea, egitea baino»

Eneritz Maiz Aduna

Jabier Zabala adunarra 25 urte zituela sartu zen udaletxera zinegotzi bezala. Bertan 32 urte pasa ostean utzi zuen udaletxerako bidea. 16 urte alkate moduan eta 12 urte zinegotzi lanetan egin ditu. Guztira 28 urtez ibili da musutruk herriaren alde lanean. Bere herriarengatik egin duen guztia eskertu asmoz, adunarrek omenaldi beroa egingo diote.

Gogoratzen al zara nolatan sartu zinen udaletxera?

Herrian talde bat geunden, herriko egoeraz kezkatzen ginenak. Hauteskundeak gerturatu ziren eta talde independente gisa aurkeztu ginen. Orduan EAJ aurkeztu zen eta beraiek irabazi zuten. Bigarren eta hirugarren legegaldietan, zerrendaburu joan nintzen. Eta hirugarrean lortu nuen alkatetza. Eta handik aurrera, lau legegalditan alkate izan nintzen. Lehenengo hiru legegalditan bi hautagaitza aurkeztu ginen. Esan bezala lehen bietan EAJ gailendu zen eta hirugarrean gaur lortu genuen gehiengo. Eta uste dut, handik aurrera ez zela beste talderik aurkeztu.

Hamasei urtean alkate izan ostean, berriz zinegotzi.

Nire azken legegaldian, jende berria sartu zen, eta berriz ere beste talde independente bat osatu genuen. Baina ia ez nintzen alkate. Zinegotzi egon nintzen azken lau urteetan.

Bizitzaren erdia udaletxera lotuta, beraz.

Bai, bizitzaren erdia izan da neurri batean. 28 urte izan dira, eta orain 57 urte ditut.

Inork ez zuen ardura hori hartu nahi, ala?

Behin sartzen zara, konpromiso batzuk hartzen dituzu, eta segi, eta segi. Gero agian utzi nahiko zenuke baina ikusten duzu beste inork ez duela nahi. 2007. urtean, beste batzuek hartu zuten ardura baina zerrenda osatzeko arazoak izan ziren, eta azkenean zinegotzi bezala joan nintzen, pixka bat lagunduz eta babesa emanez.

Erreleboa eskatu zenuen, beraz.

Hori da. Azkenean, honelako gauzetan demostratzen da, sartzea baino ateratzea zailago dela. Niri behintzat horrela gertatu zait. Horrelaxe izan da.

Zer nolako esperientzia izan da hainbeste urtez kargua izatearena?

Orokorrean esperientzia aberatsa izan dela uste dut. Beti izaten dituzu gorabeherak, eta beti esan behar da ez dela erraza. Zaila da, eta uste dut gero eta zailago dela. Gizarte gero eta konplexuagoan bizi gara.

Alde on eta txarrak izango ditu.

Bai, dudarik gabe. Orokorrean balorazio positiboa egiten dut. Sakrifizio handia suposatut, ordu

«Balorazio positiboa egiten dut, baina momentu txarrak ere pasa behar izan ditut»

asko dedikatu behar izan ditut. Nik eta beste batzuek noski. Ez da nik egindako lana bakarrik izan. Momentu txarrak ere pasa behar izaten dira.

Herri txiki bat da, eta denok ezagutzen zarete...

Denok ezagutzen gara bai. Eta arpegi txarrak ikusten dituzu, hobeagoak ere bai, ... Baina nik, herriak asko baloratu gaituenaren sentsazioa daukat. Hori hauteskundeetan ikusi da, eta beste hainbat ekitaldietan ere bai. Alde horretatik babestua sentitzen naiz.

Orokorrean esker oneko herritarrak izan dira, ala kezak nagusitu dira?

Esker oneko jendea da, baina, orokorrean nik uste denak eta euskaldunak horrela garelako, hau da, askoz ere errazago azaltzen ditugu gauza negatiboak, positiboak baino. Hala ere, oso babestua sentitu naiz, eta alde horretatik esker on eman behar dizkiet herritar guztiei.

Momentu edo legegaldi zailik, gogorrik edo txarririk baduzu gogoan? Edo momentu txar guztiak ahaztu dituzudata?

Txar guztiak ahazten saiatzen



ENERITZ MAIZ

naiz. Ez du merezi, eta positiboarekin geratzen naiz. Esan moduan, orokorrean aberatsa izan da. Gogorrena? alkate izan nintzeneko lehenengo legegaldia izan zen. Zergatik? Batez ere esperientzia faltagatik. Gauza asko ikusten duzu egiteko, eta errazagoa da gauzak egin behar direla esatea, egitea baino. Orduan konturatu ziren zara zenbat denbora behar izaten den pentsatu eta gauzak egiteko. Bertan egon ez denak, normalean ez daki, zenbat gestio egin behar diren. Esperientzia hartzen duzunean, eta behin martxa jakinda, errazago egiten dituzu. Beti izango dituzu zailtasunak, eta konpontzeko errazak ez diren arazoak. Ez duzu guztiak konpontzea lortzen, baina txarrean alkatetzako lehenengo legegaldia izan zen.

Merezi izan du?

Egindakoa eginda dago, eta damurik ez daukat. Azken legegaldia, alkatetza utzita, askoz ere suabeagoa izan zen. Erreleboa izan bazen, agian, legegaldi bat edo beste lehenago utziko nuen.

Hainbeste urte herri honi eskaini, eta orain herritarrek bueltan omenaldi baten bidez eskertzeko asmoa dutela jakin zenuenen, zer sentitu zenuen?

Aurrena harridura, ez nuen espero. Eta gero pentsatu eta buelta batzuk ematen dizkiozu. Gaur egun, orokorrean herrigintzak eta politikagintzak hain ospe edo izen txarra duenean, jende batek edo adunarrek hau merezi dudala pentsatzea, ba niretzako poza handia izan da. Eta era berean, beste jendeaz gogoratzen zara. Lanean aritu direnez eta omenaldi gabe geratzen diren zinegotzi eta alkate horietaz. Ohore handia eta pozik egoteko da.

Pasa berri diren hauteskundetara-

ko herritarrekin zerrenda bat ezin izan da osatu. Eta Alderdi Popularra izan duzue ate joki. Nola bizitu duzu egoera hau?

Pertsonalki pena handia izan da, eta oso gogorra egin zait. Alderdi Popularraren arriskua gainetik kentzen saiatu gara. Batez ere, herriarekin zerikusirik gabeko jende zegoelako. Hori lortu dugu, eta alde horretatik poz handia izan dugu. Herriak oso ondo erantzun zuen, eta eskerrak. Gogorra izan da, baina gaitzerdi.

Herritarrek zerrenda batean edo udaletxera sartu nahi ezizateak, zer pentsatua eman dizu?

Hainbat faktore dago. Herritar talde bat ilegalizatu dago, eta horrek, belaunaldien arteko etendura ekarri du. Gure garaian beti geratzen ziren lehengo batzuk, eta berri batzuk sartuz, jarraipen bat izaten zen. Eta orain, alde batetik urte mordo bat emandakoak eta jada aspertutakoak, eta bestetik, oso gazteak geratu gara. Gazteak, inongo esperientziarik eduki gabe ez dira ausartu ardura hori hartzera. Hala eta guztiz, pasa

dena pasata, orain uste dut, hautagaitza bat aurkeztu ahal izango litzatekeela. Eta espero dugu udaletxean berriz ere izango dela jende lan egingo duena.

Urte guzti hauetan Aduna asko aldatu da. Nola ikusten duzu?

Aldaketak herri gehienetan izan dira. Herriaren beharakadari buelta ematen lan asko egin dugu. Haur gutxi zeudelako, eskola galtzeko arriskuan izan zen. Beharrezkoa zela erabaki zen, eta horri buelta ematea lortu, eta eutsi egin zaio. Etxebizitza faltarengatik, biztanleen beharakada ere handia zen. Horretan ere asko saiatu gara. Batez ere, herritarrentzat etxebizitza duin batzuk, prezio txukun batean lortzen ahalegindu gara. Ehuneko ehunetan ez genuen lortuko, baina neurri handi batean bai. Bestela, herri dinamiko eta bizia dela esango nuke, eta herrian gauza askotan parte hartzen duen jendea dago. Txukun ikusten dut, nahiz eta, alde guztietan bezala, arazoak eta faltak izan, herritarrek zoriekoak gara daukagun herria daukagulako.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Eskerrak emango nizkieke deniei. Ez bakarrik omenaldiagatik, baizik eta izan dudana babesagatik. Aurrera segitzeko jendea animatu nuke, eta jarrai dezala parte hartzen. Eta batez ere, gazteei esango nieke tokia hartzeko. Etorrizuna beraiena da. Eta bakoitzak bere mailan parte har dezala erabaki eta eztabaidetan. Bestalde, txukun eta garbi jokatuz gero, errespetu minimo bat zor zaie hor daudenei. Eta herriaren interes orokorrak besteen gainetik jarritz gero, okertxo edo zuzenago lan egiten duen horri, eta gaurko egunetan oraindik eta gehiago, errespetua zor zaio.

↓ Omenaldia

EKAINAK 5, IGANDEA

- **12:00etan.** Jabier Zabala alkate ohiari Adunako herriaren alde egindako lanagatik esker ona azaltzeko ekitaldia izango da plazan.
- **Ekitaldia.** Adunako plazan herriko dultzaineroak, txistulari eta dantzariak bilduko dira. Baita Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariak ere.
- **Bazkaria.** Aburuza sagardotegian egingo dute.

Irudia ◊ Bidegoian**EMAKUMEA HIZPIDE**

Bidegoiango Emakume Astearen barruan Arantxa Urretabizkaia kazetari eta idazlearen hitzaldia entzuteko aukera izan zuten «giro ederrean». Emakumeak urteetan zehar «irabazi» edo «galdu» dituen egoeretat hitz egin zuten. 30 urteko 80 urteko emakumeak elkartu ziren eta solasaldi «aberasgarria» izan zen, antolatzaileen esanetan. Gaur, 15:00etan, 80 egunean filmarekin zine foruma egingo dute. **HITZA**

www.euskalherriko **PLAZA**.com

PUNTU ESTRAK (irabazi arte)

kot 2 puntuko

Errosteagatik jortzen diren puntuez gain...

TTAK 3 puntuko

produktu hauek **puntu estrak** dituzte.

Aste Berdean elikadura subiranotasuna lantzen ari dira bideoforumekin

Mugarik Gabeko Albaitariak bi saio bideratuko dituzte gai horren inguruan Adunan eta Zizurkilen

Imanol Garcia

Mugarik Gabeko Albaitariak Tolosaldeko Aste Berdean parte hartzen ari dira, elikadura subiranotasunaren inguruko bideoforumak bideratuz. Aitor Gomez Mugarik Gabeko Albaitariak erakunde kideak esan duenez, «egungo nekazaritza eta arrantza nolakoa den erakustea da saioen helburua, eta ekoizpen mota horrek sortzen dituen ondorioez jabetzea. Horren aurrean beste alternatiba batzuk ere badaudela azaldu nahi dugu. Hau guztia, bideoen laguntzarekin eta jendearen parte-hartzearekin».

Gaur bi saio egingo dituzte. Horietako bat Adunan izango da. Bertan *De la mata a la olla* bideoa emango dute. Lanean nekazari txikien esperientzien berri ematen da. Horrez gain, lehen eta orain nola kontsumitzen zen erakusten da bideoan. «Kontsumo

mota bakoitzak zer ondorio dituen erakusten du», dio Gomezek.

Beste saioa Zizurkilen izango da. *Tres historias y un vaso de leche* izeneko bideoa emango dute. Bertan, besteak beste, Katalunian abeltzain baten eta herrialde txiro bateko abeltzain baten esperientziak azaltzen dira. Kontsumo taldeei buruzko informazioa ere azaltzen da.

Antzezlanak, Tolosan

Elikadura subiranotasunaren inguruan beste ekitaldi bat ere izango da Aste Berdearen barruan. Larunbatean, Tolosako Zerkausian, Poliposeidas taldeak *Abecedario del cambio* antzezlanak emango du.

Antzezlan horretan, modu didaktiko batean, umorea eta beste hainbat baliabide erabiliz, tartean ikus-entzunezkoak, elikaduraren zerikusia duten industria politiken inguruan aritzen dira aktoreak. Horrez gain, Iparraldeko herrien kontsumoak Hegoaldeko herrien ekonomietan duten eragina erakusten dute, eta bereziki herrien eta pertsonen elikadura subiranotasunaren garrantzia nabarmentzen dute.

◊ Egitaraua

EKAINAK 2, GAUR

- **Aduna.** *Nola elikatzen dugu mundua?* bideoforuma, herri eskolan, 17:00etan.
- **Amezketak.** *Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura* erakusketa, kultur etxean.
- **Tolosa.** *El pan nuestro de cada día* filmarekin zine-kluba, Leidor aretoan, ohiko ordutegian.
- **Zizurkil.** *Nola elikatzen dugu mundua?* bideoforuma, Atxulondon, 19:30ean.

EKAINAK 3, BIHAR

- **Villabona.** Bigarren eskuko azoka, Berdura plazan, 17:30etik 21:00etara.

EKAINAK 4, ETZI

- **Tolosa.** *Abecedario del cambio* antzezlanak Poliposeidas taldearekin, 22:00etan, Zerkausian.
- **Villabona.** Lore banaketa Atari Bizi lehiaketaren barruan, 11:30ean, Berdura plazan.

Bidegoianek «oso zaila» du Hernaniren aurkako kanporaketa

Herriarteko Pilota Txapelketaren itzuliko partidak jokatuko dituzte, Hernanin, larunbatean

I. Garcia Bidegoian

Ez du lan erraza Bidegoiango taldeak Herriarteko Pilota Txapelketa aurrera jarraitu nahi badu. Joaneokan 1-2 galdu zuen etxean Hernaniren aurka, finalaurrean. Kadeteetan 22-16 irabazi zuen, jubeniletan 17-22 galdu eta nagusietan 6-22 galdu. Luis Galarraga taldeko arduradunak esan duenez, «gure apustua bi maila txikietan partida irabaztea zen, nagusietan bagenekielako oso zaila genuela, beraiek bikote oso ona dutelako. Kadeteetako irabazi genuen, baina jubeniletakoa ez».

Aukerak izan zituzten jubenilen partida irabazteko, baina azkenean ez zen posible izan. «Pilo-

tariak aldatu genituen, baina ezin izan genuen irabazi», dio Galarragak. «Hernanin bi partida irabazi arren, tanto kopuruetan alde handia dugu. Kanporaketa botata ez dugu, baina oso zaila dugu gaintzea».

Aurreko asteburuan etxean jokatuako partidetan, kadete mailan Urdanpileta-Urdanpileta aritu ziren, jubenil mailan Zelaia-Aburuza, eta nagusietan Egiuren-Galarraga. Kadeteetako atzelaria infantila da berez, eta Aburuza, jubeniletan aritu bazen ere, lehen urteko kadetea da. Giro ona izan zen Bidaniako frontoian. 150 lagun inguru izan ziren, aurreko beste bi kanporaketa bezala.

Larunbatean, 19:00etan, jokatu dituzte itzuliko partidak Hernaniko frontoian, eta normalean titular diren bi pilotari ez dira ariko Bidegoian taldean nagusien mailan: Senperena, lesionatuta baitago, eta Galarraga, eskuetatik ez dabilelako ondo. Hain justu, Hernaniko bikotea, nagu-

sien mailan, Euskal Herriko txapelidunak dira. «Pilotariak lana oso ondo egiten ari dira», esan du taldeko arduradunak. «Bidegoian hirugarren kanporaketara iristea ondo dagoea iruditzen zait. Orain Hernaniren aurka hiruna egiten badugu, nahiz tantoetan galdu, nire ustez emaitza oso duina izango zen».

Galarragak lau talde ikusten ditu aukera handiekin finalerdietara igarotzeko. Horietako bat beraien aurkaria, Hernani. Beste hirurak Oiarzuen, Azkoitia eta Donostia dira. Lau horietatik zain den faborito nagusia ez du hain garbi ikusten.

Tolosa, zesta puntan

Bestalde, datorren igandean, hilak 5, Herriarteko Txapelketako jardunaldiak izango dira zesta puntan, 10:30etik aurrera, Tolosako Beotibarren. Txapelketa horretan hiru mailak jokatzeko dute ere: kadeteak, jubenilek eta nagusiek. Oraingoan, tolosarrekin Donostiaren aurka aritu beharko dute.

Agurtzane Belaunzarán

Santa Klarako aldapa, Izaskun gaina eta gora doan bidea helduz gero, Uzturre hanka azpian izango du mendizaleak. Bide hau aukeratzen dute gehienek. Badira ordea, beste batzuk, gutxiago erabiliak, eta politikak direnak, aldi berean. Uzturreko mendebaldeko igoera da hori, hain zuzen; Santa Luzia auzotik, Pixuaga baserri-raino iritsi eta pinudian gora doan bidea. Azken hilabeteetan, txukuntze lanetan aritu dira Miserikordi zahararen inguruan. «Uzturre azpiko magala, koloretakoa» ikusi nahi zuen Tolosako Udalak, eta «pinua kendu eta bertako espezieak landatzea» izan dute helburu, horrela Uzturre azpiak udazkenean gorri tonalitatea har dezan eta udaberrian berde kolorez jantzi dadin. Lanaren lehen zatia da, terreneo garbiketarena, amaitu dena. Bigarren fasea falta da oraindik, zuhaitzak landatzearena, alegia.

Aitor Bartolome tolosarra garbiketaren lanaren arduraduna izan da, bost lankideen laguntza izan duenlarik. «35 urteko pinuak eskuz atera ditugu terreno malkartsu

Aitor Bartolome tolosarra eta beste bost lagunek Tolosako Uzturre mendiko mendebaldeko igoera txukuntzen aritu da, eta 15 nekazal terraza berreskuratu dituzte.

Uzturreko bidea, Machu Pichu txikia

hauetan eta lanaren amaieran, 2 hektarea garbi utzi ditugu, 15 nekazal terraza bistan geratu dira». Lana gogorra izan dela azpimarratu du Bartolomek, baina pozik dago lantaldeak lortutakoarekin.

Miserikordia zahararen ondoko sasiak eta goroldioak kendu eta ingurua txukun dago orain. Iturri zaharra ere berreskuratu dute. Aska, lehengo tokian jarri dute, eta ur bikaina dario. «Uzturrera igo aurreko malda fresko-fresko hartzeko parada izango du mendizaleak», dio. Lanak hasi zi-

tuztenetik gero eta jende gehiagok aukeratzen duela bide hau azaldu du Bartolomek. «Badirudi jendeak ahaztua zuela bidea, askok ezagutu ere ez dute egiten eta orain gu hemen gaudela jakinda, jendea hurbildu da».

Miserikordia

Duela 40 urte alde egin zuen Miserikordian bizi zen azken familiak. Harrezkero, naturak egin du bere lana, inguruan sasia eta zikina gailenduz. Bartolomek azaldu du baserriaren historia: «Arramelen

lehen ospitale bat omen zegoen, bertatik Santiago bidea igarotzen zen, eta gaixo askori ematen zion estalpea». Geroztik, orain ezagutzen dugun Miserikordia eraiki eta familia baten bizileku izan zen.

Nekazal terrazak Miserikordiarrenak zirela uste da. «Garia, artoa eta babarruna ereingo zituzten, jatekoa izateko», azaldu du.

Historia handiko bidea da honakoa. Bidean aurrera goazela, erortze dagoen dorre telegrafikoa topatuko baitugu aurre aurre. Zaharberritze saioak egin dira udako auzo lantegietan, baina udalaren asmoa «osoki berreskuratzea da».

Tolosako dorre telegrafikoa Madril eta Irun arteko komunikazio sarean sartzen zen. 1846 inguruan eraiki zuten eta sare honetan 52 dorre zeuden lotuta. Gaur egungo, Interneten antzeko sistema zen garai haietan.

Dorrea atzean utzita, gorako bidean, pagadi bat zeharkatu eta Uzturre gainera doan bidea hartu behar da. Goian, mendizale ugari-rekin topo egin, barandara hurbildu eta beheko terrazak ikusten dira, Machu Pichuren maketa txikia dirudi.

→ Laburrak**Erroizpera mendi irteera egingo dute etzi**

BERROBI Begi Gorri gaztetxeak eta hainbat herritarrek mendi irteera antolatuko dute iganderako, hilak 5. Erroizpe-Berastegi-Elduain-Berrobi ibil-bidea egingo dute 09:00etan Iriarte aurreko plazatik irtenda. Eguraldiak laguntzen badu, Erroizpe gainean, herriko gazte-ek erromeria eskainiko dutela ere argitu dute. Antolatzaileek, herritar guztiak gonbidatzen dituzte irteeran parte hartzera.

Auzolan ekimena egingo dute larunbatean

ANOETA Udal Ingurumen eta Agenda 21eko Batzordeak larunbaterako, hilak 4, auzolan ekimena antolatuko du. Oraingo honetan Alkiza errekan Osinzu-lotik Gaztetxera bitartean garbiketaren lanak egin eta inguruko sasiak moztuko dituzte. Indarrak berreskuratzeko hamaiketako txiki bat ere eskainiko dute lan egin eta gero. 09:30ean elkartzeko dira plazan.

Iragarki bat grabatzeko casting-a, gaur

ZIZURKIL Gaur Atxulondo kultur etxean 12:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 16:00etara casting bat egingo dute iragarki bat grabatzeko. Iragarkia Espainiako Loteria Primitiboarena izango da, eta Zizurkilgo baserri batean grabatuko dute ekainaren 9an. Casting-aren antolatzaileek argitu dutenez, jende «kaleko jendea» nahi dute, hau da, ez da beharrezkoa arlo honetan esperientziarik izatea.



Uzturre inguruan garbiketaren lanetan aritu dira hainbat gazte azkenaldian. A. BELAUNZARAN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

